

GERNIKA-LUMO. Hezkuntza sailburuak parte hartu eban *Bizkaiera: geure ondarea* jardunaldien inaugurazioan

Onintza Enbeita |

Atzo goizeko 11:30ean zabaldu ebezan Gernika-Lumoko Elai Alai aretoan *Bizkaiera: geure ondarea* izeneko jardunaldiak. Gernika-Lumoko PAT izan da jardunaldion antolatzailea eta inguruko ikastetxeetako irakasle nahiz gurasoak izan ziran entzule.

Zabaltze ekitaldian izan ziran Laura Uruburu Gernika-Lumoko PATeko zuzendariagaz batera, Miguel Angel Aranaz alkatea eta Inaxio Oliveri Hezkuntza sailburua.

Laura Uruburuk hartu eban lehenengo berba. PATeko zuzendariak esan ebanez, «igaz hartu genduan bideari jarraitu nahirik, euskeraren inguruan bigarren jardunaldiak antolatu doguz hezkuntza eta euskerraren irakaskuntzaren hobekuntzarako eraginkorrek izango diralakoa».

Uruburuk azaldu ebanez, «igaz alderdi teorikoetan sakondu zan, esparru pedagogiko didaktikoak aztertuz, eta gero ikasturtean zehar gure eskualde bietan, Busturialdean eta Lea-Artibain, 18 ikastetxe ibili dira hizkuntza normalizaziorako proiektuak garatzen».

Gernika-Lumoko PATeko zuzendariaren berbetan, «oraingoan pragmatikaren bidetik joko dogu. Horregaitik, gizarteko hainbat arlotako jentea izango da hemen Bizkaiko euskeraren ganeko eritxiak eta esperientziak azaltzen».

Udaleko eta Jaurilaritzako ordezkariak berba emon orduko, haxe adierazo eban Uruburuk: «bizkaierari eusteak, funtzino publikoetarako lekua emotea eskatzen dau. Ahalegin horretan hezkuntzak eta irakaskuntzak zeregin garrantzitsua daukiela pentsetan dogu. Bizkaiera gogoetagai dogula, danon arteko hausnarrerako gunea izatea gura dogu jardunaldiok».

Inaxio Oliveri: «Holako gitxi egiten dira, baina edukiz sendoak dira»

Bizkaieraren ganeko esperientzia eta egitekoak aztertuko dabez jardunaldietan



ONINTZA ENBIETA

Laura Uruburu, Inaxio Oliveri eta Miguel Angel Aranaz atzoko aurkezpen ekitaldian.

Bizirik dagoan euskeraren aldeko apostua

Gernika-Lumoko alkateak esan ebanez, «alkatea nazan neurrian, bizirik dogun euskeraren aldeko apustua, bizkaieraren aldeko apustua, agertu gura deusuet». Miguel Angel Aranazek aholkua emon eban «arrantzale eta ehiztarien lurraldean» egoala aprobetxatuta: «behar isilari ekin nasaitasunez; baina zuhur ibili».

INAXIO OLIVERI

Hezkuntza sailburua

«Latinak bere alde daukaz liburuak eta katedra ospetsuak, baina hildako hizkuntza da»

Alkatearen ostean, Inaxio Oliveri Jaurilaritzako hezkuntza sailburuak hartu eban berba.

LAURA URUBURU

PATeko zuzendaria

«Bizkaierari eusteak, funtzino publikoetarako bere lekua emotea eskatzen dau»

Bere berbetan, «bizkaieraren inguruan antolatzen diran jardunaldiak ez dira asko; bai, os-

tera, mamitsuak eta sendoak». Sailburuaren eritxiz, bizkaieraren inguruan beharrean dabilzanak, ez dihardue, «azaleko ñabarduretan».

Sailburuaren berbetan, «eguneroko jardunak eusten deus bizirik edozein hizkuntzari. Latinak bere alde daukaz liburuak eta katedra ospetsuak, baina hildako hizkuntza da. Horixe da, euskerari opa ez deusaguna. Danon ezpanetan izatea da euskerari opa deusaguna».

Eguraldi onagaz landarak izan eben estimazinorik gehien atzoko plazan

O. E. |

Ez dira prezioak larregi aldatu Gernika-Lumoko asteleheneroko plazan. Piper sikuak, esate baterako, 2000 pezetan dabilz, baina merkeago be emon ziran atzo. Izan be, ez daukie estimazino handirik eta kentzeagaitik edo merketxoago emon ziran atzo.

Osterantzean, bardin dagoz salneurriak: letxugak 75 pezetan, azelga kiloa 125ean,

espinaka kiloa 600ean, urratx kiloa 500ean, perejil txorta 100ean eta kipula dozena 300 pezeta inguruan.

Orain dala astelehen bi edo hirutik hona, baina, landarak dira gehien saldu eta erosten diranak. Kipula landarak 400 pezetan saldu ziran atzo. Bai kipula gorriaren eta bai zuria- ren sientua, lauhun pezetan saldu zan atzo Gernika-Lumon.

Letxuga landara be ugari

dago aspaldion. Atzo 100 pezetan saldu zan dozena bakotxa.

Lehenengo piper landarak be, agertu ziran atzo. Halandabe, gitxitxo eta garestitxo egoan atzo piperra plazan. Ez da izan be, piperra landatzeko sasoi egokia oraindino. Orain, batez be, negutegietarako saltzen dabe piperra eta saltzen dana be, negutegietakoa da.

Kanpoko piperra egin barik dago oraindino lekuri gehienetan. Halandabe, lehenengoak agertu izana, piperra laster plazaratuko dan seinalea izango da. San Isidroetarako, piperra izango da jaun eta jabe plazan.

AGENDA

KIROLA

Eski bidaia: datorren barikutik domekarako eski bidaia antolatu dabe Bermeo eta Gernika-Lumoko udal kirol patronatuek. Bidaia 18.800 izango da Arene edo Santanape kiroldegiko bazkideentzat eta 20.800 osterantzeko kirolarientzat. Izena emoteko Areneko kiroldegira -94 617 91 80- edo Santanape kiroldegira -94 627 00 45- deitu beharko da. Telefono horreetan izango dau, gura dauanak, informazio gehiago eskuratzeko modua.

GERNIKA-LUMO

Berbaldia: bihar arratsaldeko 17:00etan oinordetzen eta ondareen ganeko berbaldia izango da kultur etxean.

LAGURAEAN

BERMEO

Garbitasun taldea osotuko dabe aurton

Bermeoko Udaleko zerbitzu sailak, peoi bi eta txofer bat kontratatu gura dauz garbikuziko langile taldea osotzeko. Kaleak garbitzen dabezan makinakaz behar egiteko, plangintza berezia antolatu dabe Udalean. Holan, garbitasuna indartuko da domeketan eta jai egunetan. Ganera, uragaz egiten diran garbitasunak indartu eta gehitu egingo dira. Aldaketa horreekaz, garbitasun egokiagoa lortu gura da.